

HERRITARREN  
PARTE HARTZEA  
UDAL  
ERABAGIETAN



# ZERGATIK? ZERTARAKO?

- Benetako demokrazia 4 urtean behin bozkatzea baino gehiago dalako.
- Aulesti, aulestiar danona. Danon eginkizuna herriaren norabideaz hausnartzea.
- Erabagiak hartzerakoan adostasun zabalak lortzeko.



Aurreko legegintzaldietako filosofia bera.

Hainbat gune parte hartzeko, nagusiena: PLENOA



**BERRANTOLAU ETA BERRIAK SORTU**



Helburua: Udala erreklamazino gune  
izatetik



Gune parte hartzaile  
izatera.



Parte hartzea errazteko **LANTALDEAK** sortu.

### 3 LANTALDE

- 1) Hirigintza eta garapen lantaldea
- 2) Kultura lantaldea
- 3) Eskubideen lantaldea

\* **Legez baliorik ez**, baina udal ordezkariok erabagiak errespetatzeko **konpromisoa**

\* **Helburua: Ahal danik eta herritar gehienen artean adostasun zabalagaz erabagiak hartzea.**



# LANTALDEAK

Lantaldeetan talde iraunkorra beharrezkoa.



Interes pertsonalen gainerik, herri ikuspegia.



**Konpromisoa:** etxez-etxe fitxa bidez.



# Hirigintza eta Garapen lantaldea

- Funtzinoak:

- Herriaren etorkizuneko diseinua / garapena.
- Egunerokoan sortzen diran gaiei erantzun

- Gaiak:

- trafikoa
- errepideak
- basoak
- obrak
- auzoak
- saneaendua
- kasko historikoa



# Kultura lantaldea

- Funtzinoak:

- kultura, kirol eta jaien arloan, gabeziak identifikatu
- Alkarte ezbardinen ekimenen koordinazioa

- Gaiak:

- programazioa bateratu eta koordinatu
- jaiak danon artean antolatu
- gabezien aurrean proposamen barriak egin
- dirulaguntzak adostu...





# Eskubideen lantaldea

- Funtzinoak:

- Arlo ezbardinetako eskubide zapalketak identifikatu

- Irtenbideak landu

- Gaiak:

- euskara

- kontsumoa

- emakumea

- langabezia

- osasuna

- inmigrazioa...



# Lantaldeen Erabakigarritasuna

Lantaldeak erabagi gune izatea helburua.



**\*Baldintza** batzuk aurretik adostuta

## Hirigintza lantaldean:

- Kuoruma: izena emondakoen %65 (fisikoki / idatziz)
- Boto eskubidea: 1. batzarrean erabakiko da izan beharreko gitxiengo asistentzia.
- Adostasuna: kuorumaren 2/3 → Adotasunik ezean edo urgentziazko gaien kasuan, udalbatzarraren esku.

## Kultura eta Eskubideen lantaldeetan:

- Erabagiak bozketa bidez hartu beharra balego, goiko proposamenaren ganean adostutako formula bidez.



# Lantaldeen Maiztasuna

- Printzipioz hilean behin → aurrerago beharizanen arabera



Lantaldeek alkarren berri izateko



Koordinazio lanak egiteko



**TALDE MOTORRA:** Lantaldeetako  
arduradunak + herritar 1/2



-Egitasmo nagusiak eztabaidatzeko

-Aurrekontuak onartzeko

-Urteko balorazioak osatzeko



**HERRI BATZARRAK**



## Herri batzarraren baldintzak:

- Kuoruma: herritarren %5 (35 pertsona)
- Boto eskubidea: herritarra + adin nagusia
- Erabakiortasuna: bertaratutakoen 2/3aren oniritziz
- Adostasunik ezean:
  - informazio faltagatik → Errepikatu
  - Adostasuna ezinezkoa → Udalbatzak erabagi



# Udalaren gardentasuna: informazio trukea

- Herri batzarrak
- Udaletik aldizkaria 3 hilabetero
- Web orrialde berritua
- Email zerrenda



# Azken ondorioak

1)UDALA DANONA DALA SENTIDU.

2)ADOSTASUN ZABALEKIN ERABAGIAK HARTU.

3)ERABAGIEN ZILEGITASUNA INDARTU.

**KEXATZEA ESKUBIDEA BADA,  
PARTE HARTZEA BETEBEHARRA!!!**

